

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Saioa Uribe Barandiaran

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(2002)*

Aurkibidea



Biografia



Eskoriatzako dantza taldeko partaidea txiki-txikitatik. San Juan dantzari buruz hitz egin zigun, batez ere, elkarrizketan; urteetan galduta egon ondoren, suaren inguruan dantza hau egitea berreskuratu duten ohitura da Eskoriatzan.

Zintak

ESK-097

- **Proiektua:** Eskoriatzako ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2021-05-26
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Eskoriatzan San Juan dantza berreskuratzen

- **Erref:** ESK-097/004
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Eskoriatzan San Juan dantza berreskuratzeko ahalegina egin da azken urteetan. Saioaren kintoei 2019an tokatu zitzaizen tantaia jasotzea eta dantza taldeko kide batzuk zeudenez, San Juan dantza egiteak ilusio berezia egiten zien. Beraz, taldekideekin dantza hori prestatzeari ekin zioten.

2. San Juan bezpera Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-097/005
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:03:37. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Juan bezperako ohiturak Eskoriatzan: tantaia jasotzea, San Juan dantza eta sua piztea.

3. San Juan bezperako ohitura: tantaia jasotzea

- **Erref:** ESK-097/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Eskoriatzan ohitura da San Juan bezperan kintoek baserriren bateko tantai bat bota eta plazan jasotzea. 2019an tokatu zitzaion Saiolari kinto ateratzea. Garai batean zuhaitza "lapurtu" egiten zen, gaur egun baserriarekin adostuta egiten da. Puntan aza bat ipintzea da ohitura; gero kintada bakoitzak aldarrikatu nahi duena ipintzen du.</p>

4. San Juan sua

- **Erref:** ESK-097/011
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Juan sua pizteko, kintadako pare bat ordezkari aukeratzen dira eta argi-zuzien bidez pizten da sua. Zer erretzen den kontatzen du.

5. Eskoriatzako dantza taldeak zein jaietan egiten duen dantza

- **Erref:** ESK-097/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantza taldearekin zein jaialditan parte hartzen duten kontatzen du. Beste herrietako "dantzari egunera" joan izan dira.

6. Dantza taldeko jantziak eta orrazkera

- **Erref:** ESK-097/020
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:15:06. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Normalean baserritar jantzita egiten dute dantza. Hala ere, dantza berezi batzuetarako beste jantzi batzuk erabiltzen dituzte. Bakoitzak bere jantzia eramaten du baina osagarri batzuk denentzat berdinak dira. Orrazkera zapian bildutako mototsa izaten da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com